

EUSKAL HERRIKO WATERPOLOKO LIGEN ARAUDI OROKORRA

2021/2022 DENBORALDIA

Euskal Herriko Waterpoloko ligak Euskadiko Igeriketa Federazioaren eta Nafarroako Igeriketa Federazioaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren arabera antolatzen dira, eta irekita daude beste talde eta federazio batzuek parte hartzeko, araudi hau betetzen duten bitartean. Araudi honetan jasotzen ez den guztiari dagokionez, RFENren Araudi Orokorrari lotuko zaio.

1.- ADINA

1.1.- Kategoría hauek finkatzen dira:

- a) KIMUAK (2010. eta 2011. urteetan jaiotakoak)
- b) HAUR KATEGORIA (2008. 2009. eta ondoko urteetan jaiotakoak)
- b) KADETEAK (2006. 2007. eta ondoko urteetan jaiotakoak)
- b) GAZTEAK (2004. 2005. eta ondoko urteetan jaiotakoak)
- e) SENIOR (2003. eta aurreko urteetan jaiotakoak)

2.- ANTOLAKUNTZA / PARTE-HARTZEA / INSKRIPZIOA

2.1.- 2021/2022 denboraldian, txapelketa hauek egingo dira:

• Gizonezkoen senior kategoría:

1. Euskal Herriko Ligako 1. maila:

2020/2021 denboraldiaren amaieran 12 talderik onenen artean dauden gizonezkoen senior kategorian inskribatutako taldeek jokatu dute, igoerei eta jaitsierei buruzko araudiaren arabera, betiere talde-kopuru hori murriztera behartzen duen salbuespenezko egoeraren bat gertatzen ez bada (~~ikus 12.2 artikulua~~).

Txapelketak bi aldi izango ditu:

- Liga erregularra:

~~Liga-formatuan jokatu da, denak elkarren aurka, itzuli bikoitzean.~~

Lehiaketa-formatua izena eman duten taldeen kopuruaren arabera izango da.

10 taldek parte hartzen badute, 2. mailako Euskal Herriko Ligara jaitsiko da zuzenean 10. sailkatua, eta 9. sailkatua igoko da mailari eusteko. Talde kopurua 10etik gorakoa bada, 10. eta ondorengo sailkatuak jaitsiko dira. Liga Nazionaleko 2. mailara igotzeko faserako eta 3.

mailako Espainiako Txapelketarako sailkapena ematen duten plazak fase honetan jokatuko dira.

- Play-Off-ak:

Liga erregularreko 1. postutik 4.era bitartekoek Play-Off bat jokatuko dute Ligako txapelduna eta azken sailkapena zehazteko, finalerdien eta finalen formatuan (finalerdiak: 1. vs 4., 2. vs 3.; finalak: Finalerako Play-Off-a eta 3. postua lortzeko Play-Off-a).

Finalerdietako eta finaleko kanporaketak 3 partidako onenaren kontra jokatuko dira (1. partida sailkapenean hobeto dagoenaren etxean, 2. partida sailkapenean okerren dagoenaren etxean, eta 3. partida sailkapenean hobeto dagoenaren etxean, behar izanez gero). Bi partida irabazten dituen taldea izango da garailea. Partida bat bukatzean berdinketa gertatuz gero, indarrean dagoen FINA araudian adierazitakoa aplikatuko da.

3. postua lortzeko Play-Off-a partida bikoitzeko formatuan jokatuko da (sailkapenean okerren dagoenaren etxean joaneko partida; sailkapenean hobeto dagoenaren etxean itzulia). Bi partida irabazten dituen taldea izango da garailea. Partida bat bukatzean berdinketa gertatuz gero, indarrean dagoen FINA araudian adierazitakoa aplikatuko da.

2. Euskal Herriko Ligako 2. maila:

2020/2021 denboraldiaren amaieran Euskal Herriko Ligako 1. mailan plazarik ez duten gizonezkoen senior kategorian inskribatutako taldeek jokatuko dute.

Izena emandako talde-kopuruaren arabera izango da txapelketaren formatua.

Lehen sailkatua 1. mailara igoko da zuzenean **2022/2023** denboraldirako, eta 2. sailkatuak igotzeko promozioa jokatuko du.

3. Euskal Herriko Ligako 1. mailara igotzeko promozioa

Joan-etorriko formatuan jokatuko da, 2. mailatik datorren taldearen joaneko partida igerilekuan, eta 1. mailatik datorren taldearen itzuliko partida igerilekuan.

Kanporaketako zenbaketa orokorrean gol gehien sartzten dituen taldeak irabaziko du. Emaiza orokorra berdinketa bada bigarren partidaren amaieran, FINAren indarreko araudian adierazitakoa aplikatuko da.

~~Hiru partidetak onenaren kontra jokatuko da. Lehenbizikoa lehen mailako taldearen igerilekuan jokatuko da; bigarrena 2. mailako taldearen igerilekuan; eta hirugarrena, behar izanez gero, 1. mailako taldearen igerilekuan.~~

~~Bi partida irabazten dituen taldea izango da garailea. Partida bat bukatzean berdinketa gertatuz gero, indarrean dagoen FINA araudian adierazitakoa aplikatuko da.~~

4. Udaberri Liga:

Euskal Herriko Ligako 1. eta 2. mailako liga erregularra amaitu ondoren jokatu da, eta Play-Offak jokatu ez dituzten 1. mailako taldeei zuzenduko zaie, hau da, 5. postutik aurrera sailkatutakoei, baita 2. mailako taldeei ere.

“Open” formatua izango du, hau da, sailkapenaren arabera lehiatu daitezkeen taldeek ez dute nahitaz parte hartu behar.

Izena emandako talde-kopuruaren arabera izango da txapelketaren formatua, eta lehenetsiko da talde guztiek ahalik eta gehien parte hartzea.

5. Euskal Herriko Kopa:

Txapelketan parte hartzeari berariaz uko egiten ez dioten Euskal Herriko Ligako 1. eta 2. mailako talde guztiek jokatu dute. Lehen mailako Liga Erregularreko lehen itzuliaren **edo fasearen** amaieran izango da. Bai 1. mailako liga erregularrak bai 2. mailakoak eten egingo dute txapelketa Kopa jokatu den egunetan.

Lehen mailako taldeen filialak diren 2. mailako taldeek ezin izango dute Kopan parte hartu.

Liga nazionalan parte hartzen duten taldeetako filialek Kopako partidaren aurreko ligako azken jardunaldiaren amaieran zerrendan sartzeko moduko jokalariek ez dituzte izango, talde filialen araudiaren arabera.

Klub antolatzaileaz gain, 12 taldek baino gehiagok parte hartzen badute, kanporaketa bat egingo da Kopan parte hartzen duten taldeen `ranking'-eko azken sailkatuen arteko partida bakarraren aurretik, eta, hala, aurreko txanda hori jokatu ondoren, 12 talde izango dituen taula bat geratuko da (13 talde badaude, kanporaketa bat jokatu da 12. eta 13. taldeen artean; 14 talde badaude, 11., 12., 13. eta 14. taldeen artean jokatu da). Bikoteak zozketa bidez zehaztuko dira, Batzorde Antolatzaileak Kopan parte hartzen duten taldeen `ranking'-a ezartzeko zehazten duen jardunaldiaren amaieran hobeto sailkatutako taldearen igerilekuan jokatu dira.

Klub antolatzaileaz gain, 12 taldek baino gutxiagok parte hartzen badute, Kopan parte hartzen duten taldeen `rankingeko' lehen sailkatuek ez dute final-zortzirenetako kanporaketa jokatu beharrik izango, eta zuzenean pasatuko dira final-laurdenetara; beraz, zortzirenetako txanda horren ondoren, 6 talde dituen taula geratuko da (11 talde badaude, lehena salbuetsita geratuko da; 10 badaude, 1.a eta 2.a).

Aurreko kanporaketa jokatu ondoren eta final-zortzirenetako kanporaketaren aurretik, txapelketa-koadroaren zozketa egingo da. Zozketa horretan, final-zortzirenetako eta final-laurdenak, finalerdiak (final-laurdenak irabazi dituzten 3 taldeak eta klub antolatzailea sailkatuko dira) eta finala parekatuko dira.

Final-zortzirenetako eta -laurdenetako kanporaketak partida bakar batean jokatu dira, Batzorde Antolatzaileak Kopan parte hartzen duten taldeen `ranking'-a ezartzeko zehazten duen jardunaldiaren amaieran hobeto sailkatutako taldearen igerilekuan. Finalerdiak eta finala "lauko finalaren" formatuan jokatu dira. Final hori egoitza bakarrean jokatu da, egun berean, **bertan finalerdietako partidak, 3. posturako partida eta finala jokatu dira goizeko saioan (finalerdiak) eta arratsaldeko saioan (hirugarren postua lortzeko partida eta finala).**

"Lauko finala", bai gizonezkoen bai emakumezkoen kategorian, egoitza berean eta egun berean jokatu **ahal izango** da. Ekitaldiaren antolakuntza eskatzen duten klubek artean esleitu da. Klub horiek Batzorde Antolatzaileak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte eta plaza bat izateko eskubidea izango dute, **"Lauko Finala" antolatzen duten kategorietan ~~bai gizonezkoen bai emakumezkoen kategorian.~~**

Klubek "lauko finala" antolatzeko eskatzen ez badute, Batzorde Antolatzaileak erabakiko du txapelketa behar bezala garatzeko egoki iruditzen zaiona.

"Lauko finala" antolatzen duen klubak ez badu gizonezkoen kategorian parte hartzen, horretarako talderik ez duelako edo beste arrazoi batzuegatik uko egiten diolako, txapelketa-taula aldatu egingo da, "lauko finalerako" 4 talde sailka daitezten; beraz, final-zortzirenetako kanporaketan 16 taldek parte hartu ahal izango dute gehienez.

"Lauko finala" jokatzeko duten taldeek beren gain hartuko dituzte finalerdietako partidetakoa arbitro-eskubideen gastuak (arbitroenak bakarrik, ez laguntzaileenak), eta talde bakoitzak ordaindu beharko ditu bere partidaren arbitro-lanak egiten dituzten bi epaileetako baten arbitro-eskubideak.

Batzorde Antolatzaileak bere gain hartuko ditu arbitro-eskubideen gastuak (arbitroenak bakarrik, ez laguntzaileenak) hirugarren postua lortzeko partidaren eta finalean.

Klub antolatzaileak bere gain hartuko ditu "Lauko Finala"eko partida guztietako arbitraje-laguntzaileen gastuak.

6. Euskal Herriko Super Kopa:

Lau taldek jokatu dute, Espainiako eta lurraldeko ligako txapelketa hasi aurreko egunetan.

2021/2022 denboraldian liga nazionalak jokatzeko dituzten Euskal Herriko ligetako lurraldeetako taldeak izango dira parte-hartzaileak, eta goragoko kategorietan lehiatzen direnek edo **2020/2021** denboraldiaren amaieran sailkapen hobea dutenek izango dute lehentasuna.

Beharrezkoa bada, taula honela osatuko litzateke, lehentasun-hurrenkeraren arabera:

- a) Liga nazionaletatik Euskal Herriko Ligako lehen mailara jaitsitako taldearekin edo taldeekin, halakorik badago, eta **2021/2022** denboraldian txapelketa honetan parte hartzen badute.
- b) **2020/2021** denboraldian Euskal Herriko Ligako lehen mailako lehen sailkatuarekin edo lehenengoekin, **2021/2022** denboraldian txapelketa honetan parte hartzen badute.

Ezin izango dute inoiz jokatu klub berekoak diren bi taldek.

Irailean eginez gero, lizentzia indarrean duten jokalariek bakarrik sartu ahal izango dira ziurtagiri ofizialean, beste klub batekin bada ere, **2020/2021** denboraldian, eta **2021/2022** denboraldian lizentzia berria tramitatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, parte hartuko duten klubarekin.

"Lauko finalaren" formatuan jokatu da, egoitza bakarrean, egun berean, bertan finalerdietako partidak, 3. posturako partida eta finala jokatu dira ~~goizeko saioan (finalerdiak) eta arratsaldeko saioan (hirugarren postua lortzeko partida eta finala)~~. Finalerdietako talkak 1. vs 4. eta 2. vs 3. izango dira, betiere zehaztutako lehentasunezko ordena kontuan hartuta.

Partidak egoitza bakarrean eta egun berean jokatu ahal izango dira, bai gizonetzkoen bai emakumezkoen kategorian. Ekitaldiaren antolakuntza eskatzen duten klubek artean esleitu da, eta horiek Batzorde Antolatzaileak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte. Klubek Super Kopa antolatzeko eskatzen ez badute, Batzorde Antolatzaileak erabakiko du txapelketa behar bezala garatzeko egoki iruditzen zaiona.

Super Kopa jokatu duten taldeek beren gain hartuko dituzte finalerdietako partidetak arbitro-eskubideen gastuak (arbitroenak bakarrik, ez laguntzaileenak), eta talde bakoitzak ordaindu beharko ditu bere partidaren arbitro-lanak egiten dituzten bi epaileetako baten arbitro-eskubideak.

Batzorde Antolatzaileak bere gain hartuko ditu arbitro-eskubideen gastuak (arbitroenak bakarrik, ez laguntzaileenak) hirugarren postua lortzeko partidaren eta finalean.

Salbuespenetzko egoeraren batengatik Superkopa formatu murriztuan jokatu behar bada, Batzorde Antolatzaileak bere gain hartuko ditu arbitraje-gastu guztiak (arbitroenak bakarrik, ez laguntzaileenak).

Klub antolatzaileak bere gain hartuko ditu "Lauko Final"eko partida guztietako arbitraje-laguntzaileen gastuak.

● **Emakumezkoen senior kategoria:**

1. Euskal Herriko Ligako 1. maila:

Txapelketak bi aldi izango ditu:

- Liga erregularra:

~~Zenbat taldek ematen duten izena, halakoa izango da txapelketaren formatua. Parte hartzaile kopurua 10 talde baino gehiagokoa ez bada, denak elkarren aurka jokatzeko liga-formatua lehenetsiko da.~~

Lehiaketa-formatua izena eman duten taldeen kopuruaren arabera izango da.

Espainiako 1. mailako ligara igotzeko faserako eta Espainiako 2. mailako txapelketarako sailkapena ematen duten plazak fase honetan jokatu dira.

- Play-Off-ak:

Liga erregularreko 1. postutik 4.era bitartekoek Play-Off bat jokatu dute Ligako txapelketa eta azken sailkapena zehazteko, finalerdien eta finalen formatuan (finalerdiak: 1. vs 4., 2. vs 3.; finalak: Finalerako Play-Off-a eta 3. postua lortzeko Play-Off-a).

Finalerdietako eta finaleko kanporaketak 3 partidako onenaren kontra jokatu dira (1. partida sailkapenean hobeto dagoenaren etxean, 2. partida sailkapenean okerren dagoenaren etxean, eta 3. partida sailkapenean hobeto dagoenaren etxean, behar izanez gero). Bi partida irabazten dituen taldea izango da garailea. Partida bat bukatzean berdinketa gertatuz gero, indarrean dagoen FINA araudian adierazitakoa aplikatuko da.

3. postua lortzeko Play-Off-a partida bikoitzeko formatuan jokatu da (sailkapenean okerren dagoenaren etxean joaneko partida; sailkapenean hobeto dagoenaren etxean itzulia). Partida bat bukatzean berdinketa gertatuz gero, indarrean dagoen FINA araudian adierazitakoa aplikatuko da.

2. Udaberri Liga:

Euskal Herriko Ligako 1. mailako liga erregularra amaitu ondoren jokatu da, eta Play-Offak jokatu ez dituzten taldeei zuzenduko zaie, hau da, 5. postutik aurrera sailkatutakoei.

“Open” formatua izango du, hau da, sailkapenaren arabera lehiatu daitezkeen taldeek ez dute nahitaz parte hartu behar.

Izena emandako talde-kopuruaren arabera izango da txapelketaren formatua, eta lehenetsiko da talde guztiek ahalik eta gehien parte hartzea.

3. Euskal Herriko Kopa:

Txapelketan parte hartzeari berariaz uko egiten ez dioten Euskal Herriko Ligako talde guztiek jokatu dute. Liga erregularra Kopa jokatu den egunetan etengo da.

Ezin izango dute jokatu klub berekoak diren bi taldek.

Liga nazionaletan parte hartzen duten taldeetako filialek Kopako partidaren aurreko ligako azken jardunaldiaren amaieran zerrendan sartzeko moduko jokalariek baizik ez dituzte izango, talde filialen araudiaren arabera.

Klub antolatzaileaz gain, 6 taldek baino gehiagok parte hartzen badute, kanporaketa bat egingo da Kopan parte hartzen duten taldeen ‘ranking’-eko azken sailkatuen arteko partida bakarraren aurretik, eta, hala, aurreko txanda hori jokatu ondoren, 6 talde izango dituen taula bat geratuko da (7 talde badaude, kanporaketa bat jokatu da 6. eta 7. taldeen artean; 8 talde badaude, 5., 6., 7. eta 8. taldeen artean jokatu da). Bikoteak zozketa bidez zehaztuko dira, Batzorde Antolatzaileak Kopan parte hartzen duten taldeen ‘ranking’-a ezartzeko zehazten duen jardunaldiaren amaieran hobeto sailkatutako taldearen igerilekuan jokatu dira.

Klub antolatzaileaz gain, 6 taldek baino gutxiagok parte hartzen badute, Kopan parte hartzen duten taldeen ‘rankinge’ko lehen sailkatuek ez dute final-laurdenetako kanporaketa jokatu beharrik izango, eta zuzenean pasatuko dira final-erdietara; beraz, laurdenetako txanda horren

ondoren, 3 talde dituen taula geratuko da (5 talde badaude, lehena salbuetsita geratuko da; 4 badaude, 1.a eta 2.a).

Aurreko kanporaketa jokatu ondoren eta final-laurdenetako kanporaketaren aurretik, txapelketa-koadroaren zozketa egingo da. Zozketa horretan, final-laurdenak, finalerdiak (final-laurdenak irabazi dituzten 3 taldeak eta klub antolatzailea sailkatuko dira) eta finala parekatuko dira.

Final-laurdenetako kanporaketak partida bakar batean jokatuko dira, Batzorde Antolatzaileak Kopan parte hartzen duten taldeen 'ranking'-a ezartzeko zehazten duen jardunaldiaren amaieran hobeto sailkatutako taldearen igerilekuan. Finalerdiak eta finala "lauko finalaren" formatuan jokatuko dira. Final hori egoitza bakarrean jokatuko da, egun berean, **bertan finalerdietako partidak, 3. posturako partida eta finala jokatuko dira goizeko saioan (finalerdiak) eta arratsaldeko saioan (hirugarren postua lortzeko partida eta finala).**

"Lauko finala", bai gizonezkoen bai emakumezkoen kategorian, egoitza berean eta egun berean jokatu **ahal izango** da. Ekitaldiaren antolakuntza eskatzen duten klubaren artean esleitu da. Klub horiek Batzorde Antolatzaileak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte eta plaza bat izateko eskubidea izango dute, **"Lauko Finala" antolatzen duten kategorietan bai gizonezkoen bai emakumezkoen kategorian.**

Klubek "lauko finala" antolatzeko eskatzen ez badute, Batzorde Antolatzaileak erabakiko du txapelketa behar bezala garatzeko egoki iruditzen zaiena.

"Lauko finala" antolatzen duen klubak ez badu emakumezkoen kategorian parte hartzen, horretarako talderik ez duelako edo beste arrazoi batzuegatik uko egiten diolako, txapelketa-aula aldatu egingo da, "lauko finalerako" 4 talde sailka daitezten; beraz, final-laurdenetako kanporaketan 8 taldek parte hartu ahal izango dute gehienez.

"Lauko finala" jokatzeko duten taldeek beren gain hartuko dituzte finalerdietako partidetakoa arbitro-eskubideen gastuak (arbitroenak bakarrik, ez laguntzaileenak), eta talde bakoitzak ordaindu beharko ditu bere partidaren arbitro-lanak egiten dituzten bi epailetako baten arbitro-eskubideak.

Batzorde Antolatzaileak bere gain hartuko ditu arbitro-eskubideen gastuak (arbitroenak bakarrik, ez laguntzaileenak) hirugarren postua lortzeko partidaren eta finalean.

Salbuespeneko egoeraren batengatik Superkopa **formatu murriztuan** jokatu behar bada, Batzorde Antolatzaileak bere gain hartuko ditu arbitraje-gastu guztiak (arbitroenak bakarrik, ez laguntzaileenak).

Klub antolatzaileak bere gain hartuko ditu "Lauko Final"eko partida guztietako arbitraje-laguntzaileen gastuak.

4. Euskal Herriko Super Kopa:

Lau taldek jokatu dute, Espainiako eta lurraldeko ligako txapelketa hasi aurreko egunetan.

2021/2022 denboraldian liga nazionalak jokatzen dituzten Euskal Herriko ligetako lurraldeetako taldeak izango dira parte-hartzaileak, eta goragoko kategorietan lehiatzen direnek edo 2020/2021 denboraldiaren amaieran sailkapen hobea dutenek izango dute lehentasuna.

Beharrezkoa bada, taula honela osatuko litzateke, lehentasun-hurrenkeraren arabera:

- a) Liga nazionaletatik Euskal Herriko Ligako lehen mailara jaitsitako taldearekin edo taldeekin, halakorik badago, eta 2021/2022 denboraldian txapelketa honetan parte hartzen badute.
- b) 2020/2021 denboraldian Euskal Herriko Ligako lehen mailako lehen sailkatuarekin edo lehenengoekin, 2021/2022 denboraldian txapelketa honetan parte hartzen badute.

Ezin izango dute inoiz jokatu klub berekoak diren bi taldek.

Irailean eginez gero, lizentzia indarrean duten jokalariak bakarrik sartu ahal izango dira ziurtagiri ofizialean, beste klub batekin bada ere, 2020/2021 denboraldian, eta 2021/2022 denboraldian lizentzia berria tramitatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, parte hartuko duten klubarekin.

"Lauko finalaren" formatuan jokatuko da, egoitza bakarrean, egun berean, bertan finalerdietako partidak, 3. posturako partida eta finala jokatuko dira ~~goizeko saioan (finalerdiak) eta arratsaldeko saioan (hirugarren postua lortzeko partida eta finala)~~. Finalerdietako talkak 1. vs 4. eta 2. vs 3. izango dira, betiere zehaztutako lehentasuneko ordena kontuan hartuta.

Partidak egoitza bakarrean eta egun berean jokatu ahal izango dira, bai gizonezkoen bai emakumezkoen kategorian. Ekitaldiaren antolakuntza eskatzen duten klubaren artean esleitu da; eta klub horiek Batzorde Antolatzaileak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte. Klubek Super Kopa antolatzeko eskatzen ez badute, Batzorde Antolatzaileak erabakiko du txapelketa behar bezala garatzeko egoki iruditzen zaiona.

Super Kopa jokatzen duten taldeek beren gain hartuko dituzte finalerdietako partidetak arbitro-eskubideen gastuak (arbitroenak bakarrik, ez laguntzaileenak), eta talde bakoitzak ordaindu beharko ditu bere partidan arbitro-lanak egiten dituzten bi epailetako baten arbitro-eskubideak.

Batzorde Antolatzaileak bere gain hartuko ditu arbitro-eskubideen gastuak (arbitroenak bakarrik, ez laguntzaileenak) hirugarren postua lortzeko partidan eta finalean.

Salbuespeneko egoeraren batengatik Superkopa formatu murriztuan jokatu behar bada, Batzorde Antolatzaileak bere gain hartuko ditu arbitraje-gastu guztiak (arbitroenak bakarrik, ez laguntzaileenak).

Klub antolatzaileak bere gain hartuko ditu "Lauko Final"eko partida guztietako arbitraje-laguntzaileen gastuak.

- **Gizonezkoen gazte kategoria:**

1. Euskal Herriko Liga:

Txapelketak bi fase izango ditu:

- Liga erregularra:

Izena eman duten talde-kopuruaren arabera, lehen fasean taldeak multzotan banatuko dira, lurraldetik hurbil dauden kontuan hartuta, eta bigarren fasean taldeak multzotan banatuko dira, lehenengo fasean duten sailkapenaren arabera.

Espainiako txapelketarako sailkapena ematen duten postuak fase honetan jokatuko dira.

- Play-Off-ak:

Liga erregularreko 1. postutik 4.era bitartekoek Play-Off bat jokatuko dute Ligako txapelduna eta azken sailkapena zehazteko, finalerdien eta finalen formatuan (finalerdiak: 1. vs 4., 2. vs 3.; finalak: Finalerako Play-Off-a eta 3. postua lortzeko Play-Off-a).

Finalerdietako eta finaleko kanporaketak 3 partidako onenaren kontra jokatuko dira (1. partida sailkapenean hobeto dagoenaren etxean, 2. partida sailkapenean okerren dagoenaren etxean, eta 3. partida sailkapenean hobeto dagoenaren etxean, behar izanez gero). Bi partida irabazten dituen taldea izango da garailea. Partida bat bukatzean berdinketa gertatuz gero, indarrean dagoen FINA araudian adierazitakoa aplikatuko da.

3. postua lortzeko Play-Off-a partida bikoitzeko formatuan jokatuko da (sailkapenean okerren dagoenaren etxean joaneko partida; sailkapenean hobeto dagoenaren etxean itzulia).

● **Emakumezkoen gazte kategoria:**

1. Euskal Herriko Liga:

Izena emandako talde-kopuruaren arabera izango da txapelketaren formatua.

● **Gizonezkoen kadete kategoria:**

1. Euskal Herriko Liga:

Izena eman duten talde-kopuruaren arabera, lehen fasean taldeak multzotan banatuko dira, lurraldetik hurbil dauden kontuan hartuta, eta bigarren fasean taldeak multzotan banatuko dira, lehenengo fasean duten sailkapenaren arabera.

● **Emakumezkoen kadete kategoria:**

1. Euskal Herriko Liga:

Izena emandako talde-kopuruaren arabera izango da txapelketaren formatua.

● **Kadete mistoa:**

1. Euskal Herriko Liga:

Izena eman duten talde-kopuruaren arabera, lehen fasean taldeak multzotan banatuko dira, lurraldetik hurbil dauden kontuan hartuta, eta bigarren fasean taldeak multzotan banatuko dira, lehenengo fasean duten sailkapenaren arabera.

● **Haurren mistoa:**

1. Euskal Herriko Liga:

Izena eman duten talde-kopuruaren arabera, lehen fasean taldeak multzotan banatuko dira, lurraldetik hurbil dauden kontuan hartuta, eta bigarren fasean taldeak multzotan banatuko dira, lehenengo fasean duten sailkapenaren arabera.

Kategoria honetako jokoaren formatua RFEN araudiak Espainiako lehiaketetan aplikatzen duenari egokituko zaio, jokoari, parte-hartzeari eta jokalarien ordezkapenari dagokienez. **Lehiaketari buruzko araudi espezifikoak gehi ditzakeen aldatetekin.**

OHARRA: liga erregularraren azken sailkapena eta lurralde bakoitzean parte hartzen duten taldeen kopurua kontuan hartu ahal izango dira lurralde bakoitzari dagozkion plazak emateko orduan, Euskal Herriko Ligen Batzorde Antolatzaileak antolatzen dituen **2022/2023** denboraldiko haur-kategoria mistoko lehiaketetan.

● **Emakumezkoen haur kategoria:**

1. Euskal Herriko Liga:

Izena emandako talde-kopuruaren arabera izango da txapelketaren formatua.

Kategoria honetako jokoaren formatua RFEN araudiak Espainiako lehiaketetan aplikatzen duenari egokituko zaio, jokoari, parte-hartzeari eta jokalarien ordezkapenari dagokienez.

2.2.- Euskal Herriko Ligen Batzorde Antolatzaileak, klubak inskripzioak jasotzen dituzten ondoren, egutegiak egingo ditu. Klubek Euskal Herriko Ligetan izena emateko inprimakia (1. Eranskina) bete beharko dute **2021eko irailaren 28a** baino lehen.

Txapelketa batean izena eman ondoren, bertan parte hartzen ez duten klubei HIRUREHUN ETA HIRUROGEI EUROKO (360 €) isuna jarriko zaie.

2.3.- Euskal Herriko Ligetako senior kategoriako gizonezkoen 1. mailan eta emakumezkoen 1. mailan parte hartzen duten talde guztiak, kategoria bereko (gizonezkoak edo emakumezkoak) liga nazionalak jokatzeko dituzten taldeak dauzkaten klubetakoak badira, RFENren talde filialen araudiko puntu GUZTIAK bete beharko dituzte, bai eta Euskal Herriko Ligei dagozkien araudi horretako eranskina ere (ikus 2.20 artikulua). Halaber, Espainiako lehiaketetako **Igoera Faseak**, gizonezkoen 3. mailako eta emakumezkoen 2. mailako sailkapen-postuetan lehiatu ahal izango dira, bai eta mailaz igotzeko eta jaisteko postuetan ere, gainerako taldeen baldintza beretan.

2.4.- Euskal Herriko Ligako senior kategoriako gizonezkoen 2. mailan jokatzeko dituzten talde guztiak, senior kategoriako gizonezkoen 1. mailan taldeak dituzten klubetakoak badira,

RFENren talde filialen araudiko puntu GUZTIAK bete beharko dituzte, bai eta Euskal Herriko Ligei dagozkien araudi horretako eranskina ere (ikus 2.20 artikulua). Halaber, mailaz igotzeko eta promoziorako postuetan lehiatu ahal izango dira, gainerako taldeen baldintza beretan.

2.5.- Talde filial bat edo gehiago sortzea erabakitzen duen klubak horri buruz indarrean dagoen RFENren araudian adierazitakoa bete beharko du, baita Euskal Herriko Ligen araudi horren eranskina ere (ikus 2.20 artikulua). ~~Talde filialak bere talde nagusiaren izen bera izango du nahitaez, eta ondotik "B", "C"... letra, behar den moduan.~~

2.6.- Euskal Herriko Ligan, kadete misto kategorian, talde mistoek eta emakumezkoek parte hartu ahal izango dute.

2.7.- Euskal Herriko Ligako gizonetzkoen senior kategoriako 1. mailan, talde batek bakarrik har dezake parte klub bakoitzeko.

2.8.- Hainbat fase dituzten taldeen formatuan jokatzeko diren lehiaketetan, ezin izango dira izan klub bereko bi talde edo gehiago azken fasean sailkatutako lehenengoan artean.

2.9.- Jokalari batek **gehienez 2 (BI) lehiaketa edo kategoria desberdinetako 3 (hiru) partida baino ezin izango ditu jokatu guztira 3 (hiru)** asteburu berean (larunbata eta igandea), haien adina edozein dela ere.

2.10.- Gizonetzkoen senior kategoriako Euskal Herriko Ligako 1. eta 2. mailan parte hartzen duten klubek, denboraldi berean, Euskal Herriko ligetako beheragoko kategoria batean parte hartu beharko dute gutxienez (gizonetzkoen gazte, gizonetzkoen kadete, **gizonetzkoen misto** edo haur mistoen kategorietan).

Euskal Herriko ligetan sartu berri diren waterpolo modalitateko klubek ez dute arau hau bete beharrik izango gizonetzko seniorren 2. mailan parte hartzeko lehen bi denboraldietan, eta aukera izango dute mailaz igotzeko eta promozionatzeko postuak betetzeko, gainerako taldeen baldintza beretan. Parte hartzen duten lehen denboraldian gizonetzko seniorren lehen mailara igotzea lortzen badute, hurrengo denboraldian araua bete beharko dute, lehen mailan parte hartu ahal izateko.

OHARRA: Adin kategoriako txapelketa amaitu aurretik talde bat erretiratzen bada, kluba automatikoki kanporatuko da seniorren txapelketatik, beheragoko kategorietan beste talde bat ez badu.

2.11.- Izena eman duten jokalari guztiek, bai eta teknikari, ordezkariak eta laguntzaileek ere, beren autonomia-erkidegoko federazioaren lizentzia izan beharko dute. Lizentzia horiek guztiak talde parte-hartzailearen klubak sinatu beharko ditu.

OHARRA: Lizentzia baduela egiaztatzeko, araudi honen 2. Eranskinean adierazitako inprimakia bete beharko da, eta dagokion lurralde-federazioko idazkariak sinatu beharko du.

2.12.- Liga horietan jokatuko dira Euskal Herriko ligetan parte hartzen duten klubek Espainiako waterpolo lehiaketetan (emakumezkoek zein gizonetzkoenetan) parte hartzeko dituzten eskubideak.

Puntu honetatik kanpo geratzen da haurren kategoria. kategoria horretan, Espainiako lehiaketetan parte hartzeko eskubideak EZ baitira Euskal Herriko ligetan jokatu, eta lurralde-federazio bakoitzaren irizpideen arabera erabakiko baitira.

2.13.- Federazioek idazki bat bidali beharko diote Espainiako Igeriketako Errege Federazioari, eta bertan adierazi beharko dute Espainiako waterpolo lehiaketetan parte hartzeko plazak Euskal Herriko ligetan jokatu direla, baina soilik Espainiako ligetan gutxienez talde batek parte hartzen duen kategorietan. Informazio hori Euskal Herriko Ligen Batzorde Antolatzaileari ere igorri beharko zaio.

2.14.- Txapelketa guztiak Araudi Orokor honetan adierazitakoaren arabera egingo dira, bai eta txapelketa bakoitzerako berariaz egiten diren berariazko arauen arabera ere.

2.15.- Nafarroako Arbitroen Elkargoak edo Batzordeak eta Euskal Igeriketa Federazioko Arbitroen Batzordeak izendatuko dituzte arbitroak gainerako lurraldeetan.

Partida jokatzen den tokiko probintzia-elkargoek edo -batzordeek izendatuko dituzte laguntzaileak, eta klub enantzukizuna izango da eskaera hori elkargo edo batzorde horri egitea.

Gizonezkoen eta emakumezkoen senior kategoriako partidetan, epaimahaiaren mahaia waterpoloko 3 (hiru) ofizialek osatuko dute gutxienez, eta gainerako kategorietan gutxienez 2 (bi) laguntzaile izango dira.

2.16.- Partida bakoitzean 13 (hamahiru) jokalaririk sartu ahal izango dira zerrendan. Partida baino lehen, jokalarien izenen zerrenda aurkeztu beharko da, eta zerrenda hori Batzorde Antolatzaileak bidalitako ziurtagiri ofizialaren kopia digital edo inprimatu batean jaso beharko da.

2.17.- Klub guztiak eguneratuta izan beharko dituzte arbitraje-gastuak, Txapelketa Batzordearen isunak, fidantzak eta abar, inskripzioa baliozkotzat jo dadin.

2.18.- Partidako epaileek hala eskatuta, akta batean izena emandako pertsona guztiak beren nortasuna egiaztatu beharko dute egiaztagiri baten bidez (NAN, pasaporte, gidabaimena, NAN konpultsatua-ren fotokopia).

2.19.- 2004an eta ondorengo urteetan jaiotako kirolariak, klub jakin baten lizentzia badute, horrez gain, beste klub batekin parte hartu ahal izango dute, beren jatorrizko kluba inskribatuta EZ dagoen kategorietan. Horretarako beharrezkoa izango da tartean dauden bi klub en arteko akordioa, lagapen modua hartuko duena, eta Euskal Herriko Ligen Batzorde Antolatzaileari jakinarazi beharko zaio. Horrek kategoria eta klub bakoitzean parte hartzeko gaitutako jokalarien zerrendan inskribatuko du, kirolariak lagatzeko akordioa jaso ondoren.

* 2021/2022 denboraldirako SALBUESPENA: emakumezko kirolariak lagatutako kirolari gisa parte hartu ahal izango dute senior kategoriako beste klub batekin, nahiz eta haien jatorrizko kluba kategoria horretan ere inskribatuta egon. Salbuespen hori Euskal Herriko lehiaketetan bakarrik aplikatuko da, eta ezin izango da zabaltu txapelketa nazionaletara.

Kasu horretan, klub lagapen-hartzaileak ez du eskubiderik izango Espainiako Txapelketako 1. mailako igoera fasera edo emakumezkoen 2. mailarako sailkapena ematen duten postuak eskuratzeko.

2.20.- Talde nagusiei eta filialei gutxienez 11 jokalaria atxikiko zaizkie. Jokalari horiek aktiboki parte hartu behar dute, batez ere beheko mailatan filialak dituzten talde nagusietan. Hori dela eta, talde nagusiei (edo maila apalagoan beste filial bat duten filialei) atxikitako jokalarietako 11k, gutxienez, aktiboki parte hartu behar dute beren taldeak jokatzeko duen liga erregularreko txapelketako partiden % 50ean.

Parte-hartze aktiboaren baldintza nahitaez bete beharko dute Euskal Herriko ligetan lehiatzen diren talde nagusiak eta filialak dituzten klubek. Klub horien talde nagusiak (edo maila apalagoan beste filial bat duten filialak) liga nazionaletan lehiatzen badira, Batzorde Antolatzaileak ez du eskatuko hori zorrotz betetzea, baina klubaren portaera araudiaren espirituarekin bat etortzea zainduko du.

3.- ZIURTAGIRI OFIZIALAK

3.1.- Jokalari bat partidu bateko jokalarien zerrendan sartzeko, bere taldearen kategoria horretako ziurtagiri ofizialean agertu behar du. Ziurtagiri ofizial horrek Euskal Herriko Ligen Batzorde Antolatzailearen izapidetze-zigilua izan beharko du, eta Batzorde horri idatziz eskatu beharko zaio, 3. Eranskinean adierazitako inprimakian, partidua jokatu baino 7 egun lehenago gutxienez.

2.11. artikuluan adierazitakoa bete behar den zehazteko, lurraldeko federazioek ziurtagiri bat bidaliko diote Batzorde Antolatzaileari (2. Eranskinean adierazitakoaren modukoa), eta bertan jasoko da talde horretako jokalariek dagokien federazio-lizentzia dutela.

3.2.- Teknikari, ordezkari edo laguntzaile bat partidu bateko jokalarien zerrendan sartzeko, bere taldearen kategoria horretako ziurtagiri ofizialean agertu beharko du. Ziurtagiri ofizial horrek Euskal Herriko Ligen Batzorde Antolatzailearen izapidetze-zigilua izan beharko du, eta Batzorde horri idatziz eskatu beharko zaio, 3. Eranskinean adierazitako inprimakian, partidua jokatu baino 7 (zazpi) egun lehenago gutxienez.

3.3.-Euskal Herriko Ligetako **txapelketaren batean** partiduetako zerrendan teknikari gisa sartu nahi duten guztiek gutxienez titulu hauetako bat izan beharko dute: RFEN waterpoloko goi-mailako entrenatzailea, RFEN waterpoloko entrenatzaile laguntzailea, Waterpoloko II. maila, Igeriketako I. maila.

OHARRA: Gazte-, kadete- eta haur-kategoriako lehiaketetan, goian aipatutako tituluak dauzkatenez gain, 18 urtetik beherakoak ere teknikari gisa sartu ahal izango dira zerrendan, betiere EIF/FVN waterpoloko teknikariaren gaikuntza-titulua dutela egiaztatzen badute.

3.4.- Partidu bateko jokalarien zerrendan sartzeak esan nahi du adierazitako pertsona horrek baimena duela bere taldearen aulkian esertzeko. Epailak ez diete utziko aulkian esertzen eta jokoan parte hartzen partidaren aktan sartuta ez daudenei.

3.5.- Ziurtagiri ofizialean ezin izango da eskuz ezer sartu, ez eta zuzenketarik egin ere. Aldaketaren bat egin behar denean, beste bat eskatu beharko zaio Batzorde Antolatzaileari.

3.6.- Jokalari bat modu irregularrean aktan sartuz gero (hau da, bere taldearen ziurtagiri ofizialean inskribatu gabe eta Batzorde Antolatzailearen baimenik gabe), jokalari-zerrenda desegokitzat joko da.

3.7.- Klub bakoitzak gehienez ere 30 (hogeita hamar) jokalari (denak federazio-lizentziaren jabe) inskribatu ahal izango ditu lehiaketetan. Jokalari horiek ezin izango dituzte beste batzuek ordezkatu txapelketa amaitu arte, lesio larriagatik edo jokalari jakin batentzat inguruabar bereziak alegatuz klubak berariaz jakinarazteagatik justifikazio medikoa eman ezean.

3.8.- Partida bakoitzaren aurretik, klubek ziurtagiri ofizialaren kopia digitala edo inprimatua aurkeztuko dute idazkaritza-mahaian, 4.7 artikuluan adierazitako aurrerapenarekin.

4.- PROTOKOLOA

4.1.- Kolore pertsonalizatuko txanoak erabili nahi dituzten taldeek horren berri eman beharko diote Euskal Herriko Ligen Batzorde Antolatzaileari, horrek parte hartzen duten klub guztiei horren berri eman diezaien. Etxeko taldeak zein koloretan jolastu nahi duen aukeratuko du, eta talde bisitariak kolore pertsonalizatuko txanoa ere erabili ahal izango du, betiere arbitroek onartzen badute. Bestela, txano zuria edo urdina erabiliko du, hobeto bereizten dena, etxeko taldeak aukeratutako kolorearen kontuan hartuta.

4.2.- Etxeko taldea idazkaritza-mahaian ezkerraldean dagoen eremuaren erdian hasiko da jolasten, mahaitik begiraturaz.

4.3.- **Etxeko taldeak gutxienez 5 (bost) baloi jarri beharko ditu arbitroen eskura, partida jokatzeko baldintza ezin hobetan,** eta PARTIDUAREN KATEGORIARI DAGOKIONAK. Arau hau betetzen ez bada, isuna HOGEITA HAMAHIRU EUROKOA (33 €) izango da.

4.4.- Etxeko taldeak bi txano-joko (urdinak eta zuriak) eduki beharko ditu, behar izanez gero erabiltzeko, talde bisitariaren eskura. Arau hori betetzen ez badu, HOGEITA HAMAHIRU EUROKO (33 €) isuna jarriko zaio.

4.5.- Etxeko taldeak idazkaritza-mahaian eduki beharko ditu waterpoloko akta-inprimakiak eta gorabeheren eranskina, bandera urdinak, zuriak, gorriak eta horiak, sarrerak seinalatzeko, bai eta gol-markagailu bat ere, partidan tanteoa adierazteko (partida horretan markagailu elektronikoa erabiltzea derrigorrezkoa ez bada). Arau hori betetzen ez bada, isuna HOGEITA EURO (33 €) izango dira.

4.6.- Jokorako igerilekuak partida hasi baino 15 minutu lehenago egon behar du taldeen eskura. Arau hori betetzen ez bada, HOGEITA HAMAHIRU euroko isuna (33 €) jarri ahal izango zaio klub erantzuleari.

4.7.- Taldeek igerilekuan egon beharko dute, eta idazkaritza-mahaian partida hasi baino 15 minutu lehenago gutxienez jokalarien zerrenda aurkeztu beharko dute. Arau hori betetzen ez badute, HOGEITA HAMAHIRU EUROKO (33 €) isuna jarri ahal izango zaie. Mahaian aurkeztutako zerrendan inskribatu gabeko edozein jokalari sartzea desegokitzat joko da.

4.8.- Etxeko taldeak txapelketa antolatzen duten federazioen web orrian sartuko ditu partidaren emaitza eta goleatzaileak, partida jokatu eta hurrengo astelehenerako 10:00ak baino lehen, eta partidaren aktaren (eta, halakorik bada, eranskinaren) kopia irakurgarria bidaliko du Batzorde Antolatzailearen egoitzara (kopia eskaneatua edo argazkia posta elektronikoz, faxez eta abar), partida izan eta hurrengo astearteko 10:00ak baino lehen. Arau hau ez betetzeak HOGEITA HAMAHIRU euroko (33 €) isuna ekarriko du kasu bakoitzean.

4.9.- Pertsona bakarra agertu ahal izango da partida bateko aktan, jokalaria, teknikari, ordezkari edo laguntzaile gisa, nahiz eta egoera horietako batzuetan lizentzia izan (eta ziurtagiri ofizialean agertu).

4.10.- Goiko 4.7. artikuluan adierazitako jokalarien zerrendak idazkaritza-mahaian entregatu ondoren, ezin izango dira aldatu.

4.11.- Talde bateko jokalarien gutxieneko kopurua 7 (zazpi) izango da partida hasi ahal izateko.

4.12.- Senior kategorian parte hartzen duten talde guztiek, bai Euskal Herriko ligetan (gizonezkoen 1. eta 2. mailan eta emakumezkoen 1. mailan), bai gainerako lehiaketetan, markagailu elektronikoa izan beharko dute eta BETI erabili beharko dute etxean jokatzen duten partidetan.

4.13.- Gainera, senior kategoriako talde bat edo gehiago izateagatik 4.12. artikulua bete behar duten klub guztiek markagailu elektronikoa erabili beharko dute BETI edozein kategoriatan etxean jokatzen dituzten partidetan.

4.14.- Markagailu elektronikorik erabiltzen ez den partidetan, taldeek ordezkari bat (ordezkari-lizentzia duena eta partiduen aktan inskribatua dagoena) jarri ahal izango dute idazkaritza-mahiaren ondoan, joko-aldiak edo baloiaren edukitze etengabea amaitzeko zenbat denbora falta den adierazteko.

5.- BATZORDE ANTOLATZAILEA, TXAPELKETA ETA APELAZIOA

5.1.- Euskal Igeriketa Federazioak eta Nafarroako Igeriketa Federazioak beharrezkoak diren langileak izango dituzte Batzorde Antolatzailea sortzeko. Batzorde horrek txapelketaren garapen egokia zainduko du, inskripzio, egutegi, sailkapen eta abarri dagokienez. Batzorde Antolatzaileko arduradunak bi izango dira, bakoitza dagokion federazioak izendatuta.

5.2.- Halaber, antolatzen diren lehiaketetan izan daitezkeen gorabehera guztiak ebazteko, epaile bakarra izendatuko da Euskal Federazioak eta Nafarroako Federazioak hautatutakoa, Waterpoloko Euskal Herriko Ligen Txapelketa Batzordea eratzeko. Batzordeak lehen auzialdian ebatziko du, Diziplina Araubidearen Erregelamenduan, Euskal Herriko Ligen Araudi Orokorrean eta RFENren Erregelamenduan eta Arautegian oinarrituta.

5.3.- Era berean, Apelazio Batzordea sortuko da. Euskal Federazioko eta Nafarroako Federazioko presidentek eta biok izendatutako hirugarren kide batek osatuko dute batzorde hori, eta bigarren auzialdian aurkeztutako errekurtsioak ebatziko dituzte.

5.4.- Txapelketa Batzordea asteazkenetan bilduko da astero, txapelketak irauten duen bitartean (jai izanez gero, bilera ostegunean izango da). Bilera horretan, aurreko asteburuko partidaren aktak aztertuko dira, eta egun horretan izandako gorabeherari dagozkien zehapenak ezarriko dira.

5.5.- Egun bakar batean txapelketa gisa jokatzaren diren lehiaketetan (Super Kopa eta Euskal Herriko Kopako "lauko finala"), berehala bete beharreko kirol-zigorren bat behar duten lehiaketetan izan daitezkeen gorabeherak Txapelketa Batzordeak ebatziko ditu, presako prozeduraren bidez.

5.6.- Partidetan izandako gorabeherari buruzko alegazioak aurkeztu nahi dituzten klubek idatziz egin beharko dute (posta elektronikoz edo faxez) eta Txapelketa Batzordeari bidali beharko diote, partida jokatu eta hurrengo asteazkeneko 10:00ak baino lehen.

5.7.- Diziplina-espeditarearen bidez ezarritako zehapenak, arau-hauste larri edo arinengatik prozedura arruntaren bidez jarritakoak, berehala betearaziko dira, eta horien aurka jarritako erreklamazioek edo errekurtsioek ez dute haien betearazpena geldiaraziko edo etengo, organo eskudunak kontrakoa ulertu ezean.

5.8.- Ohiz kanpoko prozeduraren izapidearen arabera, ezarritako zehapenak ez dira betearaziko harik eta Apelazio Batzordeari errekurtsioen edo erreklamazioen behin betiko ebazpena eman arte. Hala ere, bidezkotzat jotzen diren behin-behineko kautelazko neurriak hartuko dira.

5.9.- Txapelketa Batzordeak edozein prozeduraren bidez lehenengo auzialdian emandako diziplina-ebazpenen aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Apelazio Batzordeari, 10 (hamar) egun balioduneko epean, jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita.

5.10.- Errekurtsioen berariazko ebazpena gehienez ere 30 (hogeita hamar) egun balioduneko epean eman beharko da. Epe hori iraganik, administrazioaren isiltasunaren bidez ulertuko da errekurtsioa ezetsi egin dela.

5.11.- Erreklamazioak edo errekurtsioak aurkezteko idazkietan, honako hauek jaso beharko dira:

- a) Errekurtsio-egilearen izen-deiturak, haren identifikazio pertsonala eta elkarterakundearen izen soziala.
- b) Errekurritzen den egintza eta inpugnazioaren arrazoiak, egokitzat jotzen diren alegazioak aurkeztuz, bai eta haiei buruz egiten diren froga-proposamenak eta haien uzien oinarri diren arrazoibideak ere.
- c) Data eta errekurtsio-egilearen sinadura, eta jakinarazpenetarako adierazten den tokia.
- d) Zein federazio-organori zuzentzen zaion.
- e) Alegazio, arrazoibide eta agindu horietatik ondorioztatzen diren uziak.

- f) Apelazio Batzordeari egindako errekurtsioekin batera, berrehun euro (200 €) ordaindu beharko dira, eta, baietsiz gero, ehun eta berrogeita hamar euro (150 €) itzuliko dira.

5.12.- Interesdun orok atzera egin ahal izango du bere eskaera edo eskariarekin, eta uko egin ahal izango dio bere eskubideari. Hasierako idazkia interesdun bik edo gehiagok aurkezten dutenean, atzera egiteak edo uko egiteak hori formulatzen dutenei baizik ez die eragingo.

Hala ere, espediente berean beste interesdunik agertuz gero, eta horiek, atzera egin dutela jakinarazi eta 10 (hamar) eguneko epean, jarraitzeko eskatzen badute, diziplina-organo eskudunak ez du espedientea amaitutzat joko, eta, aitzitik, bidezkoa den izapidearekin jarraitzeko aginduko du, erregelamendu honetan agindutakoarekin bat etorriz.

Diziplina-organo eskudunak noiznahi mugatu ahal izango dizkio atzera egitearen ondorioak interesdunari, eta prozedurarekin jarraitu ahal izango du, gaiak interes orokorra sortzen badu edo egitateak argitzeko prozedura bideratzea komeni bada.

6.- FIDANTZA

6.1.- Bi fidantza- edo gordailu-mota ezarri dira, egungo Araudi Orokorrek ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzeko:

- a) HIRUREHUN ETA HIRUROGEI EURO (360 €), kluba Euskal Herriko ligetan talde batekin edo birekin inskribatzen bada.

- b) BOSTEHUN EURO (500 €), bi talderekin baino gehiagorekin inskribatzen bada.

6.2.- Fidantza hori nahitaez ordaindu beharko da izena ematean, eta denboraldia amaitzean itzuliko da, hala badagokio, bidezko deskontuekin.

7.- ISUNAK ETA ZEHAPENAK

7.1.- Partida jokatu eta hurrengo astearteko 10:00ak baino lehen Euskal Herriko Ligen Batzorde Antolatzaileari aktaren kopia irakurgarririk bidaltzen ez bazaio, HOGEITA HAMAHIRU EUROKO (33 €) isuna jarriko da.

7.2.- Partida jokatu eta hurrengo asteleheneko 10:00ak baino lehen txapelketa antolatzen duten federazioen web orrian emaitza eta golegilea(k) ez sartzeak HOGEITA HAMAHIRU EUROKO (33 €) isuna ekarriko du.

7.3.- Partida jokatu aurreko bigarren asteko ostiraleko 14:00ak baino lehen (hau da, 15 egun lehenago) Euskal Herriko Ligen Batzorde Antolatzaileari etxean jokatzen diren partiden ordutegiak ez jakinaraztea HOGEITA HAMAHIRU EUROKO isunarekin zigortuko da (33 €).

7.4.- Partidak jokatu aurreko asteko ostiraleko 14:00etatik aurrera, ordutegia eta/edo eguna aldatzeko eskaerak HOGEITA HAMAHIRU EURO (33 €) isunarekin zigortuko dira. Isuna eskaera egiten duen klubarena izango da.

7.5.- Talde bat ez aurkezteak, 7 (zazpi) jokalar bano gutxiagorekin aurkezteak eta edozein partidu jokatu aurretik edo jokatu bitartean talde bat erretiratzeak BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EUROKO (250 €) isuna izango dute lehen aldiz gertatzen direnean, eta, gainera, partida galtzeagatik dagokion zehapena jasoko dute, 5-0 tanteoarekin, eta hiru puntu kenduko zaizkie sailkapen orokorrean. Bi fasetan egiten diren lehiaketen kasuan, hiru puntuko kenketa gorabehera hori gertatzen den faseari bakarrik aplikatuko zaio, eta ez da hurrengo fasera eramango.

Gorabehera hori kanporaketen bidezko txapelketa batean (Ligako Kopa edo Play-off-a) gertatzen bada, klub arau-hauslearen kontra ebatziko da.

7.6.- Aurrezko 7.5 artikuluan adierazitakoa errepikatuz gero, jarrera horren errudun den taldeari BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR euroko (250 €) beste isun bat ezarriko zaio, eta, orobat, talde horrek ordura arte lortutako emaitza guztiak kenduko dira. Era berean, talde horrek kategoria galduko du hurrengo denboraldian, gizonezkoen senior kategoriako 1. mailan parte hartzen badu.

7.7.- Izena emateko epea amaitu ondoren, txapelketa bano lehen edo txapelketa egin bitartean talde bat erretiratzen bada, HIRUREHUN ETA HIRUROGEI EUROKO (360 €) isuna jarriko da.

7.8.- Talde batek Euskal Herriko Super Kopan parte hartzeari uko egiten badio, araudiaren arabera, hura lehiatzeko sailkaturiko 4 taldeen artean badago, bai gizonezkoen bai emakumezkoen kategorian, HIRUREHUN ETA HIRUROGEI EUROKO (360 €) isunarekin zigortuko da.

7.9.- Jokalarien zerrendan behar ez bezala sartuz gero, EHUN EUROKO (100 €) isuna jarriko da; horrez gain, partida galtzeagatik dagokion zehapena jarriko da, 5-0 tanteoarekin, eta hiru puntu kenduko dira sailkapen orokorrean. Bi fasetan egiten diren lehiaketen kasuan, hiru puntuko kenketa gorabehera hori gertatzen den faseari bakarrik aplikatuko zaio, eta ez da hurrengo fasera eramango.

Waterpolo-jokalarien zerrendan sartzea desegokia izan bada diziplinazko zigorra duelako, klub arau-hausleak partida galdu duela joko da lehen aipatutako 5-0 emaitzarekin (ez da punturik kenduko), eta partida hori gaizki jokatu zuen jokalaria zigorra betetzeko zenbatuko zaio.

Jokalarien zerrenda desegokia kanporaketa bidezko txapelketa batean (Ligako Kopa edo Play-off-a) bada, klub arau-hauslearen kontra ebatziko da, izandako emaitzak gorabehera.

7.10.- Talde bat ez dela aurkeztu ulertuko da partida hasteko aurreikusitako ordutik 20 minutu igaro badira. Hala ere, partida hasi aurreko 15 minutuen ondoren talde bat aurkezteak (aktan agertuko diren parte-hartzaileen zerrendarekin) zigor ekonomikoa izan dezake eta, errepikatuz gero, kirolekoa ere bai. Era berean, igerilekua aipatutako baldintzetan ez badago, etxean jokatzeko duen taldea zigortu ahal izango da.

7.11.- Zehapen ekonomikoek fidantza gainditzeko badute, berehala ordaindu beharko ditu klubak.

7.12.- Txapelketa Batzordeak ezarritako zehapenak partida bat edo gehiago (jokalari, teknikari edo ordezkariak) bertan behera uztea ekartzen duenean, arau-haustea egin den partidari dagokion TXAPELKETA, ADIN-KATEGORIA ETA MAILA BEREAN (hainbat maila dituen kategoria bada) bete beharko dira, non eta Txapelketa Batzordeak ez duen erabakitzen zehapena beste modu batera betetzea.

7.13.- Partida bat edo gehiago bertan behera uztea dakarren zigorraren kasuan, partida osoa edo zati bat ezin bada dagokion denboraldia amaitu baino lehen bete, hurrengo denboraldian ekingo zaio berriro betetzeari, txapelketa eta kategoria berean.

Aurrekotik salbuetsirik dago adin-kategoria batean zigortutako jokalaria, kategoria horretako parte-hartzea amaituko duena; hurrengo denboraldian goragoko hurrengo kategoriarira pasatuko da. Kasu horretan, zigorra jokolariaren kategoria berrian beteko da.

Era berean, zehapen osoa edo haren zati bat bete ez duen zehatutako jokalari baten taldea mailatik igotzen edo jaisten bada, edo jokalari hori beste maila bateko talde bateko kide bihurtzen bada, zigorra hurrengo denboraldian jokalaria parte hartzen duen mailan beteko da.

7.14.- Partida bat jokatzeko ez denean, klubek gastu guztien erantzukizuna izango dute, bai federazioei bai gainerako klubei eragiten dietenean. Kasu horretan, kaltetutako klubek (edo kaltetutako federazioek) aurkeztu beharko dizkiote Batzorde Antolatzaileari gastu horiei buruzko erreklamazioak, eta hark erabakiko du.

Batzorde Antolatzaileak partida jokatzeko jotzen duenean (talde parte-hartzailearen bati galdutzat emanda), ez da beste taldearentzat inolako kalte ekonomikorik izango, partida jokatzeko joko baita.

7.15.- Ezartzen diren isunen ondorioz biltzen diren zenbatekoak Euskal Herriko Ligak eta Kopak eta gainerako txapelketak (Txapelketa Batzordea, Apelazio Batzordea, trofeoak, etab.) antolatzaiek sortzen dituen gastuak ordaintzeko erabiliko dira.

7.16.- Teknikariei erakutsitako txartel horiekin batera, HOGEI EUROKO (20 €) isuna jarriko da.

7.17.- Txapelketa-batzordeak larritzat edo oso larritzat jotzen dituen diziplina-kanporatze guztiekin batera, gehienez, HIRUROGEI EUROKO (60 €) isuna jarri ahal izango da.

7.18.- Talde batek EH Ligako gizonen senior kategoriako 1. mailan elkarren segidako bi denboralditan parte hartzeari uko egiten badiu, hala bigarren mailatik igotzeko eskubideari uko eginez bi denboraldi horietan, nola denboraldi batean 1. mailan parte hartzeari uko eginez, postua betetzen bazuen, eta hurrengo denboraldian mailaz igotzeko eskubideari uko eginez, hurrengo denboraldian mailaz igotzeko eskubidea galduko du.

Zigortutako taldeak "txapelketatik kanpo" hartuko luke parte denboraldi horretako EH Ligako gizonen 2. mailan.

8.- EGUNAK ETA ORDUAK

8.1.- Tokiko taldearena ez den beste probintzia bateko talde bisitariak parte hartzen duten partidetan, hasierako ordutegiak larunbatean (10:00etatik 20:45era), edo igandean edo jaiegunean (10:00etatik 18:00etara) finkatu beharko dira, joan behar duen klubaren idatzizko akordiorik ez bada.

8.2.- Tokiko taldearen probintzia bereko talde bisitariak parte hartzen duten partidetan, 8.1 artikuluan adierazitako ordutegietan ez ezik, ostiraletan ere hasi ahal izango dira partidak, 19:30etik 22:15era.

8.3.- Tokiko taldeek ordutegiak egokituko dituzte, beste probintzia batzuetako klubak joan-etorriak optimizatzeko.

8.4.- Igerileku berean jarraian jokatzen diren partidek GUTXIENEZ **ordu bat eta 10 minutuko** tartea izango dute hasierako orduen artean, lehen partida haurren kategoriarik dagokionean izan ezik; kasu horretan, gutxieneko tartea ordubetekoa izango da.

9.- TXAPELKETA-EGUTEGIA, EGUN-ALDAKETAK ETA ATZERAPENAK

9.1.- Izena emateko epea igaro ondoren, Euskal Herriko Ligen Batzorde Antolatzaileak txapelketa-sistemak zehaztuko ditu, hala behar duten kategorietan izena eman duten taldeen arabera. Lehiaketetako jardunaldien egunak zehaztuko ditu (larunbatean adierazitako dira, besterik adierazi ezean, finkatutako ordutegirik gabe), zozketa egingo da ligen kasuan, eta egutegiak egingo dira eta klub guztiei jakinaraziko zaizkie.

9.2.- Egutegi horiek behin betikoak izango dira, klubek jardunaldi bakoitzeko partiden egunak eta ordutegiak zehaztu arte, partiden ORDUTEGIEN BERRI EMATEKO PROTOKOLO honen arabera:

- a) Klubek txapelketa antolatzen duten federazioen web orrian sartu beharko dituzte partida guztien ordutegiak, etxeko talde gisa, partida jokatu aurreko bigarren asteko ostiraleko 14:00ak baino lehen (hau da, 15 egun lehenago). Ordutegiak jakinarazteko epeak betetzen ez dituzten klubak 33 euroko isuna jarriko zaie, eta, berriz horrela jokatzen badute, dagokien txapelketatik kanporatu ahal izango dira.
- b) Sartzen diren ordutegiak federazio antolatzaileen web orrian egongo dira eskuragarri, eta behin-behinekoak izango dira argitaratzen direnetik.
- c) Taldeek partidak jokatu aurreko asteko ostiraleko 14:00ak arteko epea izango dute ordutegi-aldaketak edo egun-aldaketak elkarren artean negoziatzeko, behin-behineko ordutegiak jakin ondoren eta betiere Batzorde Antolatzaileak gainbegiratuta. Azken ordu hori gairatutakoan, argitaratutako ordutegiak behin betikoak izango dira.
- d) Partiduak jokatu aurreko asteko ostiraleko 14:00ak igaro ondoren ordutegia eta/edo eguna aldatzeko eskaera guztiak Batzorde Antolatzailearen baimena jaso beharko dute, eta, gainera, 33 euroko isuna jarriko zaio eskaera egiten duen klubari.

9.3.- Bi klubek partida bat atzeratzea erabaki dezakete bien artean, betiere araudiak aukera ematen badu; horretarako arrazoia eman beharko dute, behin betiko ordutegiak argitaratzeko azken eguna iritsi baino lehen (astelehenetan, 10:00etan).

Partida atzeratzea erabaki ondoren, klubek atzeratutako partida jokatzeko beste egun bat adostu behar dute, eta Batzorde Antolatzaileari jakinarazi, egutegiaren arabera partida jokatu behar zen egunetik zazpi (7) egun natural igaro baino lehen. Data alternatiboak GERORATZEKO BALDINTZA hauek bete behar ditu:

- a) Gizonezkoen senior kategorian (1. eta 2. mailan) eta emakumezkoen senior kategorian, bi itzuliko ligako formatua baldin bada, liga erregularreko lehen itzuliaren barruan atzeratutako partidak lehen itzulia amaitu baino lehen jokatu beharko dira, betiere atzerapena lehen itzuliaren azken egunean gertatzen ez bada edo, ezinbesteko arrazoiren batengatik, partida lehen itzulia amaitu baino lehen jokatzeko ezinezkoa bada; kasu horretan, bigarren itzuliko partida jokatzeko den eguna iritsi baino lehen jokatu beharko dute bi taldeek.
- b) Gizonezkoen senior kategorian (1. eta 2. maila) eta emakumezkoen senior kategorian, bai eta gizonezkoen gazte kategorian, gizonezkoen kadete kategorian eta hurren kategorian mistoaren azken faseetan sailkatutako lehen taldeetan ere, liga erregularreko bigarren itzulian edo azken fasean atzeratzen diren partidak NOLANAHI ERE jokatu beharko dira liga erregularreko azken jardunaldiko partidaren aurretik. Talde batek EZIN izango du HIRU (3) partida baino gehiago jokatu liga erregularreko azken bi asteetan.
- c) Gizonezkoen senior kategorian (1. eta 2. maila) eta emakumezkoen senior kategorian, bai eta gizonezkoen gazte kategorian, gizonezkoen kadete kategorian eta hurren kategorian mistoaren azken faseetan sailkatutako lehen taldeetan ere, ezinbesteko arrazoiren batengatik liga erregularreko azken egunean partida bat atzeratu behar bada, kaltetutako klubak arazoa konpondu beharko du, partida nola edo hala jokatzeko, betiere horrek sailkapenean eragin handia badu.
- d) Bi fase desberdinetan lehiatzen diren kategorietan, lehen fasean atzeratutako partidak NOLANAHI ERE jokatu beharko dira bigarren fasea hasi baino lehen.
- e) Ligako eta Euskal Herriko Kopako Play-Offeko partidak ezin izango dira atzeratu, ezinbesteko kasuetan izan ezik, edo haiek jokatzeko proposatutako data alternatiboak txapelketaren ohiko garapenean eraginik ez duela egiaztatzen denean izan ezik.

9.4.- Datak waterpoloko edo igeriketako beste txapelketa batzuekin bat etortzea ez da inoiz ezinbestekotzat hartuko.

9.5.- Atzeratutako partida jokatu behar zen egunetik 7 (zazpi) egun natural igaro ondoren, parte hartzen duten klubek ez badute akordio batera iritsi ordezko datari buruz, edo ez badiote horren berri eman Batzorde Antolatzaileari, edo proposatutako datak ez baditu 9.3 artikuluan eskatutako baldintzak betetzen, Batzorde Antolatzaileak ATZERAPEN-GATAZKAREN PROTOKOLOA jarriko du martxan, eta urrats hauek egingo ditu:

- a) Batzorde Antolatzaileak protokoloa abian jarri dela klubei jakinarazi ondoren, etxean jokatzeko duen taldeak 7 (zazpi) egun naturaleko epea izango du Batzorde

Antolatzaileari eta talde bisitariari partida jokatzeko gutxienez 4 (lau) egun alternatibo proposatzeko eta jakinarazteko. Egun horiek desberdinak izan beharko dute, gutxienez 3 (hiru) egun desberdin izango dira, gehienez 8 (zortzi) asteko epean banatuko dira, eta 9.3 artikuluan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte, ahal den neurrian.

- b) Etxeko taldeak egun alternatiboak proposatu eta jakinarazi ondoren, talde bisitariak beste 7 (zazpi) egun naturaleko epea izango du proposatutako datetako bat aukeratzeko eta Batzorde Antolatzaileari eta etxeko taldeari jakinarazteko. Aukeratutako data behin betikotzat joko da.
- c) Talde bisitariak proposatutako datetako bat ere aukeratu ez badu, Batzorde Antolatzaileak hartuko du behin betiko erabakia, eta proposatutako datetako bat aukeratu du, bere irizpidearen arabera txapelketa behar bezala egiteko egokiena dela uste badu.

9.6.- Batzorde Antolatzaileak eguna eta/edo ordutegia aldatzeko eskaera onartzen badu, etxeko talde gisa agertzen den klubak aldaketa horren berri emango dio dagokion Lurralde Federazioko Arbitroen Batzordeari, partidako laguntzaileei jakinarazi ahal izateko.

9.7.- Ez da onartuko artikulua honetan adierazitakoaren arabera aurkezten ez den partidaren ordutegi-aldaketarik.

9.8.- Eguraldi txarragatik partidak bertan behera uztea EUSKAL HERRIKO LIGEN BATZORDE ANTOLATZAILEARI dagokio. Horretarako, PROTOKOLO hau ezarri du:

- a) Partida jokatu aurreko egunean, joango den taldearen arduradun bat Euskal Herriko Ligen Batzorde Antolatzailearekin harremanetan jarriko da, sortutako arazoaren berri emateko. Batzordeak baimena ematen badu, arduradun hori aurkako taldeko arduradun batekin harremanetan jarri beharko da, eta ohartarazi beharko dio partida bertan behera uzteko aukeraz edo adostu ahal izango dute partida bertan behera uztea. Partida antolatu duen klubak horren berri eman beharko dio dagokion Arbitroen Batzordeari, horrek partidarako deitutako arbitroei eta laguntzaileei jakinarazteko.
- b) Elkarrizketa horren ondoren, biak ados egongo dira, partida bertan behera utzi ez bada, hurrengo egunean irteerarako aurreikusitako orduan komunikatzearekin, eta autobus-enpresaren edo errepideen zerbitzu instituzionalaren (Ertzaintza, Foruzaingo edo Guardia Zibilaren) gomendioei jarraituko zaie. Partida antolatu duen klubak partidari buruzko behin betiko ebazpena jakinarazi beharko dio dagokion Arbitroen Batzordeari, hark partidarako deitutako arbitroei eta laguntzaileei jakinaraz diezaien.
- c) Gorabehera horiek partidaren egun berean gertatzen badira, ahaleginak egingo dira Batzorde Antolatzaileari eta etxean jokatzen duen klubari lehenbailehen jakinarazteko, aurreko puntuan bezala jokatu ahal izan dezaten.

10.- PUNTUAZIO-SISTEMA

10.1.- Liga-formatuan jokatzen diren lehiaketetan, puntuazioa honela egingo da:

- a) 3 puntu emango dira irabazitako partida bakoitzeko.
- b) Puntu bat emango da berdindutako partida bakoitzeko.
- c) 0 puntu emango da galdutako partida bakoitzeko.

10.2.- Txapelketa baten amaieran, edozein sailkapenetan, puntu-kopuru bera badago bi talderen edo gehiagoren artean, RFENren indarreko araudiak diotenari jarraiki ebatziko da.

10.3.- Koparen edo kanporaketaren formatuan jokatzen diren lehiaketetan, talde honek irabaziko du:

- a) Partidaren azken emaitzaren ondoren irabazle dena (partida bakarreko kanporaketetan), edo zenbaketa orokorrean emaitza onena lortzen duena (joan-etorriko kanporaketetan).
- b) Partidaren amaieran (partida bakarreko kanporaketetan) edo zenbaketa orokorrean (joan-etorriko kanporaketetan) berdinketarik bada, indarrean dagoen FINAren araudian xedatutakoa aplikatuko da.

10.4.- Partida jakin batzuetako onenak irabazten duen play-off formatuan jokatzen diren lehiaketetan, talde honek irabaziko du:

- a) Seriean zehar partida gehiago irabazten duenak.
- b) Partida bat bukatzean berdinketa gertatuz gero, indarrean dagoen FINAren araudian adierazitakoa aplikatuko da.

11.- BALDINTZA TEKNIKOAK

11.1.- Partida guztien iraupena joko eraginkorreko 7 (zazpi) minutuko lau denborakoa izango da, eta horietako bakoitzaren artean 2 (bi) minutuko atsedenaldiak egongo dira, HAUR kategorian izan ezik; hor, jokoaren formatua RFEN araudiak diotenari lotuko zaio, 11.2 artikuluan adierazitako aldaketak sartuta.

11.2.- HAUR kategorian, aldi bakoitzak 6 (sei) minutu iraungo du denbora jarraituan.

11.3.- Txapelketa eta kategoria guztietan 12 jokalaria sartu ahal izango dira zerrendan, eta ez da nahitaezkoa izango 13. zenbakiko txanoa duen jokalaria ordezko atezain gisa besterik ez jardutea. Atezain titularrak 1. zenbakiko txanoa eraman beharko du, eta haren ordez beste jokalaria bat jarri ahal izango da, 13. zenbakiko txanoa eraman beharko duena.

Atezain titularra (1. txanoa) jokalaria bakar batek (13. txanoa) bakarrik ordezkatu ahal izango du partidaren zehar. Atezain postua bi jokalarien artean txandakatu ahal izango da, behin eta berriz. Ezin izango du beste jokalaria batek atezain gisa jokatu, egoerak hala eskatzen ez badu behintzat (lesioak, kanporatzeak).

12.- IGOERAK, JAITSIERAK ETA UKOAK

12.1.- Euskal Herriko ligetatik datozen taldeak, Espainiako Liga Nazionalerako gizonezkoen bigarren maila edo emakumezkoen lehen maila jokatzeko ari badira eta kategoriaz jaisten badira, edo liga nazionalerako edozein kategoriatan parte hartzeari uko egiten badiote denboraldiaren amaieran, automatikoki jaitziko dira Euskal Herriko Ligako gizonezkoen senior kategoriako edo emakumezkoen senior kategoriako 1. mailara.

12.2.- Euskal Herriko Ligako gizonezkoen senior kategoriako 1. mailaren kasuan, Liga Nazionalerako talde bat edo gehiago jaitziz gero edo talde batek edo gehiagok uko eginez gero, eta horien kopurua Liga Nazionalerako talde batek edo gehiagok uko eginez gero, eta horien kopurua Liga Nazionalerako talde batek edo gehiagok uko eginez gero, talde gehiegi egongo lirateke txapelketa horretan, eta, salbuespen gisa, txapelketa 12 talde egotea baimenduko litzateke. Kasu horretan, eta soilik plazak betetzeko beharrezkoa balitz, igotzeko promozio talde galtzailari jolasten utziko zaio Euskal Herriko Ligako 1. mailan.

12.3.- Euskal Herriko Ligako gizonezkoen senior kategoriako 1. mailan parte hartzen duen talde batek Liga Nazionalerako bigarren mailara igotzea lortzen badu, mailaz igotzeko promozio talde galtzailak beteko du postu hutsa, betiere Liga Nazionalerako parte hartzen duen eta Euskal Herriko Ligan lehiatzeko gai diren beste taldeek uko egiten ez badiote edo txapelketa nazionalerako parte hartzeko eskubidea galtzen ez badute.

~~12.4.- Euskal Herriko Ligako gizonezkoen senior kategoriako 1. mailatik Liga Nazionalera bi talde igotzen badira, eta ez bada talderik jaisten edo uko egiten alderantzizko noranzkoan, postu hutsak mailaz igotzeko promozio talde galtzailak eta Euskal Herriko Ligako 1. mailako talde batek beteko dituzte.~~

12.4.- Talde batek uko egiten badiu Euskal Herriko Ligako gizonezkoen senior kategoriako 1. mailan parte hartzeari, postu hutsa mailaz igotzeko promozio talde galtzailaren esku geratuko da. Hainbat taldek uko eginez gero, Euskal Herriko Ligako 1. mailatik zuzenean jaitziko taldeak beteko du hurrengo postu hutsa. Hala ere postu hutsak betetzeko taldeak behar izanez gero, lehenik, zuzenean jaitziko hurrengo taldeek beteko dituzte postu hutsak (baldin badaude), eta, gero, beharrezko mailako (2. mailako) taldeek, igo den azken taldearen atzetik sailkatutakoak.

12.5.- Euskal Herriko ligetan parte hartzen duen talde batek **Espainiako Ligan igoera fasean**, gizonezkoen 3. mailako Espainiako Txapelketa, emakumezkoen 2. mailako Espainiako Txapelketa edo bere kategoriako Espainiako Txapelketa parte hartzeko sailkapena lortzen badu eta uko egiten badiu txapelketa horretan parte hartzeari, txapelketa horretarako plaza lortu ez duen Euskal Herriko Ligan hobeto sailkatutako taldeak beteko du bere postua. Beste talde batek uko eginez gero, postu berria hurrengo sailkatuak beteko du, eta horrela hurrenez hurren.

12.6.- Euskal Herriko Ligako 2. mailako lehen sailkatua Euskal Herriko Ligako gizonezkoen 1. mailara igoko da. Euskal Herriko Ligako 2. mailako bigarren sailkatuak promozioa jokatuko du Euskal Herriko Ligako 1. mailako bederatzigarren sailkatuaren aurka, hiru partidetatik onenera.

12.7.- Euskal Herriko Ligako gizonezkoen senior kategoriako 1. mailako hamargarren sailkatuak (eta hurrengoek, 10 talde baino gehiago egonez gero) talde galduko du, eta hurrengo denboraldian Euskal Herriko Ligako 2. mailan parte hartu beharko du.

NAFARROAKO IGERIKETA FEDERAZIOA
FEDERACIÓN NAVARRA DE NATACIÓN

Paulino Caballero, 13, 31002 Pamplona – Iruña
Teléfono: 948227279 – Fax: 948220905
info@fnn-nif.com / www.fnn-nif.com

EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA
FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

Julián Gaiarre, 50 – Bajo – 48004 BILBAO
Teléfono 94 459 81 96 – Fax 94 459 81 97
info@eif-fvn.org / www.eif-fvn.org

Bederatzigarren sailkatuak promozioa jokatuko du, Euskal Herriko Ligako 2. mailako bigarren sailkatuaren aurka, hiru partidetatik onenera.

EUSKAL HERRIKO WATERPOLOKO LIGEN ARAUDI OROKORRA
2021/2022 DENBORALDIA

1. ERANSKINA

EUSKAL HERRIKO WATERPOLOKO LIGEN BATZORDE ANTOLATZAILEA

_____ jaunak/andreak,
_____ ordezkaritzan;
klubaren _____
Helbidea _____
PK _____ Herria _____
Telefonoa _____ Posta elektronikoa _____

Talde hauek inskribatu nahi ditu Euskal Herriko ligetarako:

Gizonezkoen senior kategoriako 1. maila _____

Emakumezkoen senior kategoriako 1. maila _____

Gizonezkoen senior kategoriako 2. maila _____

Gizonezkoen gazte kategoria _____

Emakumezkoen gazte kategoria _____

Gizonezkoen kadeteak _____

Emakumezkoen kadeteak _____

Kadete mistoa _____

Haur kategoria mistoa _____

Emakumezkoen haur kategoria _____

* X batez markatu zein txapelketatan parte hartu nahi den.

** Adierazi txano pertsonalizatuaren kolorea, erabili nahi bada.

Hortaz, Federazioari eskatzen dio Euskal Herriko Ligen Batzorde Antolatzaileari egindako eskaera hau tramitatzeke.

.....-n, 2021ko-ren-(e)an.

KLUBAREN IZENEAN,

Izptua.: